



1. INFORMAZIO OROKORRA

1.1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Bestelakoa adierazi ezean, Arabako Batzar Nagusiak dira zure datuen tratamenduaren arduradun.

Gurekin harremanetan jarri zaitezke telefono edo posta elektronikoz bidez, edo bertara etorritik. Gure helbidea honakoa da:

C/ Vicente Goikoetxea, 2
01008 Vitoria-Gasteiz
Telefonoa: 945 125 100
Email: ciudadania@jggalava.eus

1.2. Nor da datuen babeserako ordezkaria?

Gure datuen babeserako ordezkaria (DBO) Ainhoa Sagarduy da. Harremanetan jarri zaitezke berarekin dpd-dbo@jggalava.eus helbidean edo gure posta-helbidera gutun bat bidaliz.

1.3. Zeintzuk dira zure eskubideak datuak emandakoan?

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (DBEO) eta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko eta Eskubide Digitalen Bermeari buruz 3/2018 Lege Organikoak (DBLO-EDB) interesdunei hainbat eskubide aitortzen diete euren datu pertsonalen inguruan. Jarraian horien berri ematen dizugu: Eskubide horien aplikazioa kasuan-kasuan aldatuko da tratamendu bakoitzari zilegitasuna ematen dion oinarri juridikoaren arabera eta baliatzea doakoa da.

Zure eskubideak baliatu ditzakezu Batzar Nagusiekin harremanetan jarritik idatzizko komunikazio bidez, NANaren edo identifikazio-agiri baliokidearen fotokopia erantsita, honako helbide honetan:

C/ Vicente Goikoetxea, 2
01008 Vitoria-Gasteiz
Teléfono: 945 125 100
Email: jggalava@jggalava.eus

Behin eskubide horiek baliatzeko eskabidea jasota, ebazpen bat emango dugu. Ebazpenarekin ados egon ezean, erreklamazioa jarri dezakezu Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean (DABEA) www.avpd.euskadi.eus.

Informazio gehiago aurki dezakezu eskubide horiei buruz helbide honetan: [aquí](#).

1.3.1. Datuetan sartzeko eskubidea (DBLOren 15. artikulua)

Eskubide honek ahalmena ematen dizu jakinaren gainean egoteko zuri eragiten dizuten datu pertsonalak tratatzen baditugu; hala bada, datu horiek ikusteko eskubidea izango duzu. Eskubide hau baliatzeko eskaerak banan-banan aztertuko dira, zenbait kasutan ezin delako eskubidea baliatu.

Eskubide hori baliatzeko formulario sekzioaren sumarioan deskargatu dezakezu.

1.3.2. Zuzentzeko eskubidea (DBLOren 16. artikulua)

Eskubidea duzu tratatzen ditugun datuak zehaztugabeak direnean aldatzea eskatzeko. Halaber, eskubidea duzu zure ustez osagabeak diren zure datuak osatu ditzagun.

Eskubide hori baliatzeko formulario sekzioaren sumarioan deskargatu dezakezu.

1.3.3. Ezerezteko eskubidea (DBLOren 17. artikulua)

Eskubidea duzu eskatzeko zure datu pertsonalak ezabatu ditzagula, DBLOren 17. artikuluan jasotako inguruabarretako bat izanez gero.

Eskubide hori baliatzeko formulario sekzioaren sumarioan deskargatu dezakezu.

1.3.4. Tratamendua mugatzeko eskubidea (DBLOren 18. artikulua)

Eskubide honi esker eskatu dezakezu zure datuan tratamendua mugatu ditzagula DBLOren 18. artikuluan jasotako zenbait inguruabarretan.

Eskubide hori baliatzeko formulario sekzioaren sumarioan deskargatu dezakezu.

1.3.5. Portabilitate-eskubidea (DBLOren 20. artikulua)

Eskubide honi esker, bitarteko automatizatuen bidez egiten diren tratamenduetarako, eskatu ahal izango duzu zure datuak jasotzeko formatu egituratu batean, ohiko erabilerakoan eta irakurketa mekaniko eta interoperagarrikoa; hala, tratamenduaren beste arduradun bati helarazi ahal izan diezaiozun.

Eskubide hau soilik aplikatu daiteke zure onespenean oinarritutako tratamenduetan edo kontratu bat gauzatzen delarik.

Eskubide hori baliatzeko formulario sekzioaren sumarioan deskargatu dezakezu.

1.3.6. Aurka egiteko eskubidea (DBLOren 21. artikulua)

Eskubidea duzu zure datu pertsonalak tratatu ez ditzatela eskatzeko, tratamendua interes publikoaz edo interes legitimoaz burututako misio batean oinarrituta denean

Eskubide hori baliatzeko formulario sekzioaren sumarioan deskargatu dezakezu.



1.4. Zein kasutan jakinaraziko ditugu zure datuak?

Ez ditugu zure datuak inola ere lagako aurretiaz zuri jakinarazi gabe eta behar bezalako oinarri legitimatzailea izan gabe.

Zenbaitetan, hainbat zerbitzu ematen diguten enpresak kontratatzen ditugu, eta horretarako zure datu pertsonalak behar dituzte. Enpresa horiekin tratamenduaren enkargatuaren kontratuak sinatu ditugu, eta kontratu horiek bete egiten dituzte DBLOren eta DBLO-EDBren xedapenak. Kontratu horien bidez, ziurtatu egiten dugu enpresa horiek eskuratzen dituzten datuak kontratatutako zerbitzua emateko baino ez dituztela erabiliko, ez dituztela erabiliko baimendu gabeko xedeetarako, eta ez dizkietela datuok lagako hirugarren enpresa eta/edo administrazioei. Gainera, exijitu egiten diegu zure datu pertsonalen isilpekotasuna eta osotasuna bermatzen dituzten segurtasun-neurriak ezartzeko. Soil-soilik kontratatzen ditugu datuen babesari buruz indarrean diren xedapenak betetzen dituztela bermatzen diguten enpresa eta entitateekin.

Kasu bakoitzean jakinaraziko dizugun bezala, zenbait kasutan legez laga behar dizkiegu datuak administrazio publikoei, lege horiek aitortzen dizkiguten botere publikoak baliatze aldera.

Kontrakoa adierazi ezean, ez ditugu datuak nazioartean transferitzen.

1.5. Zein segurtasun-neurri aplikatzen ditugu datuen tratamenduan?

Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren II. Eranskinean jasotakoekin, zeinaren bidez erregulatzen baita Segurtasun Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan.

